

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko apirilak 24 / II. urtea / 21. zenbakia

## Nafarroa: Zein? Zer? Zertako?



PIARRRES XARRITON


**B**aztandarren Eguna izan zen lehenik. Gero etorri dira besteak: Lapurtarren Eguna, Biduztarren Eguna eta ere Nafarroaren Eguna. Denak sail berean sartzekoak ote? Hots halako 'Aberri Egun' berri eta 'xokokotu' batzuen sailean? Dezagun ikus!

Aspaldian kurri diren hitz asko bezala, 'Nafarroa' hitzak adierazpen hainitz badaramatza berekin. Itxura bera, euskaraz ere, aldatu izan diote, batzuk 'Nabarra', bestek 'Naparra' edo 'Nafarra' deitzen ohi baizuten gure gaurko 'Nafarroa'.

Eremuaren aldetik, gure 'Euskadi lehena' zeukan Nafarroa Michel Labéguerie poetak, bainan izaitz badakigu Euskal Herriatik urrun ere heldu izan dela lehen erreinu zaharraren muga, Tuteratik harat Errioxaraino eta Nabarengosetik harat Paberaino. Funtsean, egungo egunean oraino, Pabeko Kontzeilu Orokorra 'Nafarroako Legebiltzarra' deitzen da eta Gasteizeko Jauriaritzak Nafarroako kateak beretu zituelarik Iruñako Biltzarrak protestatu zuen bezala, zain gaude beti noiz ote Alli jaunak bere kexua adieraziko dion Bayrou jaunari.

Ametsak ordea joan ziren eta Lebequerie eta Xalbador heldu bazaizkigu noiz edo noiz, ordu bat edo bestez, iragan mendetara gure eremaitera, gaurko egoera besterik da. Aspaldi du Nafarroako erreinu zaharra murriztu, zaitu eta suntsitu zutela. Azkenean gaurregun ezagutzen dugun Nafarroan, erran behar da, euskaldunak eta euskalezaleak guttiengo apur bat direla eta, gehiago oraino, duela 50 urte doi-doi, probintzia horren eta Hegoaldeko beste probintzien artean izan zen gerla itsusiak utzi dituen zauriak ez direla oraino ahantziak, ez osoki sendatuak.

Eta beraz? Erranen didazue. Beraz nere uestez, ez dezakegu asma gure biharko Aberriaren izena, Nafarroan izanen dela. Ez eta ere haatik menturaz Euskadi, Euskal Herria baizik. Eta erdaraz Baskonia, Oihenart zaharrak eta Chahok geroztik erakutsi ziguten bezala. 'Nafarroa' ordea Hegotasmu bat bezala har nezake, Baigorriko erreka eta Nafarroa Behereko abertzale guzientzat; bainan gogoan hartzekotan, ez Ibañetako bataila eta zalaparta loriosak(?), Lizarrako edo Bianako ikastolen lan ixil eta umilak baizik. Ezen nere iduriko euskaltasuna eta euskara onartua eta praktikatua izanen direnean Nafarroa osoan. Tuteratik Bastidaraino, orduan ez da Baigorriko ikastola hetsi beharko, orduan ez da Esnaazuko auzapeza frantses alderdi baten hautagai ezarriko, bainan orduan, Zazpiak bat eta libre izanen dira.



## Apirilak 26 Baigorriin: nafar orotarren eguna

Geure burua ederki zaindu dugu aste honetakoan. Nafarkeria lepora diezaigutela nahi dutenek, baina etzi Nafarroaren Eguna ospatzen dugu eta harro gaudete, ze gero! Igandean, eta hamalagarrenez, mugaz ipar zein hegoaldeko nafarrak Baigorriin elkartuko gara. Iparla eta Basaizea elkartetako lagunei esker, egun hori ez datorkigu esku hutsik. Egitarau bete bete izango dugu bihar hasi eta maiatzak 3 egiten dituen bitartean. Iaz nafartasuna zer den galdetu genien alde bie-

tako zenbait nafarrei eta nekez argitu ahal izan ziguten. Ez zen galdera makala: nork azal lezake hitzetan zer den maitasuna, zer gorrotoa? Ez dago elearen beharrik. Aski da Baigorriarantz abiatzeko grina izatea eta bertakoe kin bestan bat egitea. Egun batez mugak hutsalak izango dira, lo karriak estutuz eta diferentziekin aberastuz. Eta, arren, Bixenta ostatuan ikusten garenean ez ezaigazue galde Nafarroa Garaiakoak ala Beherekoak garen. Orotarrak gara.



## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Jose Luis Mayor** artistaren erakusketa ikus daiteke Gotorlekuko Mistoen Pabilioian, maiatzaren 3a arte. 'Parisen erorketa' izenburupean aurkezturiko erakusketa hau, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalaren laguntzarekin prestatu da.

**Javier Muro** eskultorearen lanak ikus daitezke Nafarroako Aurrezki Kutxaren kultura aretoan apirilaren 30a arte. Erakusketa hau 'Sormenari laguntzak' kanpainaren barruan dago, artista gazteei laguntza emateko. Arratsaldetan ikus daiteke, zazpietatik bederatzietara, asteko egunetan, eta jai egunetan eguerdiko hamabietatik ordubietara.

**Pilar Alava Mendieta** artistaren erakusketa ikus daiteke maiatzaren hamarra arte Lan Kide Aurrezki Kutxaren arte aretoan, Sarasate ibilbidean. Marrazkiak dira neska honek aurkezten dituen lanak, Gipuzkoako leku desberdinetako irudiak sortuz. Naturaltasun handiz egindako marrazkiak dira, argiguneez eta itzal-errainuen marraz bereizituz.

### ZINEMA



'I Love You' izeneko pelikula ospetsua ikusteko aukera dago datorren ostegunetan Tafallako Español zinemaren, hiri horretako Kultur Patronatoak antolatutik. Marco Ferreri zuzendariaren fil-

## Mugaz bi aldeetako mendiak

Igandean Nafarroaren eguna Baigorri delata eta asteburu ona igarotzeko parada dago Baztango mugako mendietan, hain zuzen ere Amaiur eta Arizkongo inguruetan, handik gutxira ingura bait daiteke Baigorriara. Mendi honetatik mugaz bi aldeetako bailarak ikusteko aukera ezin hobe dago.

XVI. mendearen hasieran frantsez tropak okupatu zuten Amaiur. 1521 urtean Baztango herrixka hau izan zen Gaztelu errexumarekin elkartzearen kontra zeuden nafarren babeslekua. Hauek gogor borrokatu zuten Enrike de Albreten alde. Amaiurtik Gorramendira igo eta Baztan eta Nafarroa Beherako mendiak bistartzeko leku aproposa da. Gorramendi urte askoz Estatu Batuetako armadaren esku egon zen eta hauek radar base bat jarri zuten bertan. Amairretik gertu dagoen Arizkun XIX. mende arte agoteak, herrian baz-



turturik zegoan jendea alegia, bizitzen ziren Bozate izeneko auzoan. Bertan eskulangintzan oso trebe den jende asko aurki dai-

teke. Harria, zura edota zeramikako tresna dotoreak egiten dituzte. Aipagarriak dira baita ere Ursua eta Bergarra dorre etxeak.

ma honetan Christopher Lambert eta Eddy Mitchell aktoreak lan egiten dute. Ikustaldia bi saiotan izango da, bata arratsaldeko zortzietan eta bestea gabeko hamar t'erdietan.

'La fosa comun' eta 'Dos duros sobre ruedas' izenburuko pelikula eskainiko dute asteburu honetan Leitzako zinemak. Lehendabiziko filma gaur gabeko hamar t'erdietan izango da, eta bi-

garrena, berriz, igandean botako dute, hilak 26, arratsaldeko bostetan eta zortzietan. Gaurkoa beldurrezko pelikula da, eta etziko akzio filma dugu, aktore ezagunak agertzen direlarik.

'Oz-eko aztia' filma ikusteko aukera izanen da gaur Iruñeko Salesianos aretoan, arratsaldeko bost t'erdietan. Victor Fleming zuzendutako pelikula honetan Judy Garland eta Frank Morgan

dira aktoreek lan egiten dute. 'Oz-eko aztia' amaiera emanen dio Iruñeko Udalak antolatu duen haurrentzako euskarazko zinema zikloari.

### MINTZALDIAK



'Gizartea eta trasplanteak' gaiari buruz arituko da gaur Rafael Matesanz, Trasplanteen Koordinatzaile Nazionala. Min-

tzaldia gabeko hamarretan izango da Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalaren duen hitzaldi aretoan.

**Kirola gizartean** gaiari buruz mintzaldi bat izanen da gaur arratsaldetan Santacaran, La Torre elkartean. Mintzaldia Alfonso Condon Uriz futboleko maila nagusian arbitroa izandakoa eta orain kiroleko azaltzailea denak emango du. Arratsaldeko zortzi t'erdietan burutuko da ekitaldia.

### IBILALDIAK



**Sakanako Kirol Batzordeak** mendi ibilbide bat prestatu du igande honetarako, hilak 26, mountain bike txirindulaz izango dena. Ibilaldia Urbasan hasiko da, handik Balcon de pilatos eta Otsoportillora joan eta berriz Urbasara itzuliko da. Arduraduna Jose Luis Lizarraga izango da.

### MUSIKA



**Iruñeko Ganbarako Abesbatza Elkartea** arituko da igandean, hilak 26, Azteraingo San Cosme eta San Damian Elizan, goizeko hamaika t'erdietan. Musika klasika, abesti herritarak, tonadillak eta andaluziako hiru kantu eskainiko ditu Abesbatza honek.

**Refugiados** taldea arituko da gaur, apirilak 24, gaueko hamar t'erdietan, Eugiko Iketza tabernan.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatean 9etatik 10etara... Xinguli Muangulu haurrendakoa saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45era... Informazio saioa Baztan, Malerreka eta Bortziritako berriekin. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara...Gautxori irritsaio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zear 20.30etatik 22.30etara...Zuri eta Beltz. Musika, elkarrizketak eta erreportaiak Fermin Erbitirekin.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara...Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

### ERRAN DUTE



Alli lehendakaria ezker abertzalekoia dela ematen du»

Luis Fernando Medrano

Regionalistas Navarros alderdiko burua

«Erljioa modan dago, horrela ez iduritu arren»

Jose Morales

Teologia irakaslea

«Bezeroek etengabe erasotzen gaituzte. Neu kotxe batetik bilutsik bota ninduten»

Gaztelu plazako prostituta

«Lan gutxiago eginez diru gehiago irabazten saiatzea alperrikakoa da»

Juan Pelaez  
Enpresaria

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Maurizio Elizalde



Txistularia

Baztango txistulari handia pasa den larunbatean hil zen Arizkun, 77 urte zituela. Txistulari izateaz gain, folklore ikertzaile eta biltzaile garrantzitsu modura nabarmendu zen Maurizio Elizalde, eta betirako galtzeko zorrien zeuden doinu eta dantza asko berrekuratu eta eraberritu zituen. Musika munduan hamaika urte zituela eman zituen lehen pausak, bere aitaren ondoan, eta berrogei urtetan zehar Arizkongo txistulari ofiziala izan zen. Euskal Herriko baztar guztietan zehar bere zaharren kulturaren zati eder bat erakusten eman zuen denbora.

#### Jose Joakin Goñi



Mendizalea

Jose Joakin Goñi Azanza atzo Jaurkitu zuten hilda Ama Dablan mendian. Nafar espedizioa apirilaren hiruan abiatu zen nepaliar Himalayaruntz, eta Aberri egunean lortu nahi izan zuen Ama Dablan mendiaren gailurra. Igoeran berandutu ziren, eta gaua pasatzeko babesleku baten bila zihoztelarik, J.J. Goñi irristatu eta amildegian jausi zen. Hiru egun eman zuten mendizaleek Goñiren bila, eta atzo aurkitu zuten, jausi zen lekutik 1.500 metrotara. Gorpuaren erreskatea zaila da, eta bere lagunek Goñi betirako Ama Dablango malde-tan uztea erabaki dute.

#### Ulises Denia



Okupa

Iruñean bizi den Ulises Denia Igaztea tiroz zauritu zuen Sevillako poliziak joan den igandean. Gazte iruñarrak 92. urtearen aurkako akanpandan parte hartzen zuen Sevillan. Akanpada honek antolatutako rock jaialdiaren ostean ehundaka lagun bildu ziren manifestaldian. Poliziak modu bortitzean disolbatu zuen manifestaldia, eta horren ondorioz bi lagun tiroz zauritu zituen, Ulises nafarra eta Beatriz Martinez lezotarra. Gertakizun hauek salatzeko Amaiurko Quetzal Agiriak eta Lore Etxeak manifestaldia deitu dute gaurko, Gaztelu enparantzan ilunabarreko zortziretan.



## Nafarroaren Eguna



**E**gun batez bada ere, bat eginen dute Nafarroa Garaiak eta Behe-reak. Biltokia, ohi bezela, Baigorri izanen da, heldu den igandean, apirilak 26 ditue-  
nean. Nafarroaren Eguna hamalau urte betetzen ditu aurten eta, aurreko urteotako usadioari jarraiki, ez datorkigu esku hutsik. Aurretik eta ondotik izanen da zer egina,

Basaizea elkarteak antolaturiko Euskal Kultur Astea bete bete aurkezten zaigu eta. Alde bateko eta besteko nafarrek bizi-  
modu arrunt diferenteak dituztela eta har-  
tuemanak, mugen poderioz edo, moteltzen  
joan direla dio Beti Bidartek. Ez galdu be-  
raz ezberdintasunak ezagutzeko eta loturak  
indartzeko parada.




PATXI ULAIAR / IRUNEA

## Hator Baigorrrirat!

Bihar hasi eta maitzaren 3ra bitartean gustoko aukera egiteko parada izanen da Baigorri. Gaiteroak, txarangak, dantzak, antzerkia, txistulariak... goizetik ilunabarrera, egitarau bete bete antolatu du Basaizea elkarteak Baigorriko Euskal Kultur astea dela eta. Ohi bezala, astearen muina Nafarroaren Eguna izanen da, etzi, apirilak 26 ditue-  
nean, ospatuko dena. Aurtengoan hamalau urte beteko ditu alde bietako nafarrek elkartzen dituen bestak.

Egun handiaren aurretik eta ondotik ere egonen da zer ikusia. Aste guztiko ekitaldiak aurkez-  
teko izan genituen Beti Bidart, Serge Isteque eta Mari Agnes Gorostiaga Iruñeko Iparla elkar-  
tean.

Hasteko, bihar ospatuko den Gaita Egunak 150 gaitero bilduko ditu Baigorri. Gaita Eguna, Bidartek jakin erazi digunez, orain bi urte abiatu zen Uztaritzen. Izura, Donibane Lohitzune, Uztaritze eta beste hainbat herri-  
tan gaita klaseei ekin zieten, Nafarroa Garaiko gaiteroen laguntzaz. Uztaritzen jaiotako Gaita



Ohi bezala, astearen muina Nafarroaren Eguna izanen da.

**B**aigorriko Euskal Aste Kultureko bihotza Bixenta ostatua izanen da aurten. Izerdi eta libera anitz kostata, Basaizea elkarteak egoitza berria lortu du azkenik Baigorriko plazan.

Egunaren bigarren edizioa Donibane Lohitzunen egin zen iaz eta aurten Baigorri izanen du lekuko.

Egun osoan Iruñeko gaiteroek emanen duten kontzertuaren ondotik, gaueko bederatzi t'erdietan kontzertua izanen da Baigorriko elizan. Lehen emanaldia Baigorri, Baiona, Tuter, Iruñea, Bilbo, Lizarra eta Uztaritzekoek eskainiko dute eta bigarren partean Donibane Lohitzuneko Harmonia eta Iruñeko gaiteroak izanen dira entzungai.

Gaita egunari amaiera emateko, gau pasa eginen da Bixenta ostatuan, herriko plazan. Bixentaenea dugu, hain zuzen, aurtengo Euskal Kultur asteko protagonista nagusi. Basaizea elkarteak lagunei hainbeste izerdi eta libera

kostatu zaien etxeari esker, aurrerantzean euskal kulturak egoitza dotorea izanen du Baigorriko kantonamenduan.

Giroa bezperatik berotuta, besta gori gorian igandean ezagutuko dugu. Nafarroaren Eguna goizean goiz agurtuko dute gaitero, txaranga eta txistulariek, Baigorriko karriketan barrena. «Nafarroaren Eguna mundu guztiak daki zer den —dio Beti Bidartek—, nafar guztiak biltzeko besta. Gure izpirituan argi daukagu egun honen esanahia eta alde hortatik berrikuntza handirik ez da, nahiz urtetik urtera, beti urratsez urrats, badiren gauza berriak».

Nafarroa Garaiko jendea aise mugitzen dela diote bestaldeko

nafarrek, «baina gure interesa bertako jendea mugeri eraztea da». Eta bertakoak ez dira lo geratu, hantxe izango bait dira kantona-  
menduko haurrak, kantari taldea, musika eskolakoak eta baita kor-  
alakerak ere.

Egun nagusiaren ondotik, bestak atseden hartuko du astelehenean, bazter guztiak garbitu ahal izateko. Asteartean laborantzari buruzko mahai ingurua egingo da Ortzaizen. Bestak ezezik, etorkizun goibelak ere elkar hurbiltzen ditu alde bietako nekazariak eta horixe izango da eztabaidagai 'Herria, mozkina eta gizonak' mahai inguruan. Beti Bidarten esanetan, «bost urteren buruan anitz laborantza zerratu-  
ko dira, gaur egungo politika ho-

betzen ez bada eta esnearen prezioa ikusirik. Ondorioz, beste anitzek pairatuko dute, bai komertziantziari tipiek, bai ofizialeak ere. Herri ttipietako bizi guzia beheti joanen da». Mahainguruan parte hartuko dute M.Couillet (INAO), Mixel Bergouignan (Syndicat AOC Iroulégy), Jean Camblong (Syndicat AOC Ossau Iraty), M.Ecomar (Syndicat AOC Jambon de Bayonne) eta Sopexa elkarteak ordezkaritza batek.

Ortzegunean bestak muga gaiteratu du, Elizondon ospatuko bait da Haurren Eguna. Jokeak, dantzak eta zinea eskainiko zaie Baztango eta Baigorriko haurrei. Zineari dagokionez, 'Le pas suspendu de la cigone' filmea

izanen da ikusgai, Théo Angelopoulusek zuzendua eta Marcello Mastroianni eta Jeanne Moreau aktoreekin.

Ortzegunean Juan Carlos Etxegoien 'Xamarrek' bere azken liburuaren aurkezpena eginen du arratsaldeko sietan, Bixenta ostatuan. 'Orhipean' liburuaren presentazioaren ondotik, Baigorriko bil etxean Kale-  
doniako herriari buruzko mintzaldia entzuteko parada izanen da.

Ostiralean, maiatzak 1, antzerkiari helduko zaio txanda. Ozti-  
barreko antzerki taldearen esku-  
tik, 'Aberenia' antzezlanaren taula-  
ratuko da Baigorriko bil etxean.

**B**estak ezezik, arazo amankomunak elkartzen ditu alde bietako laborari nafarrek. Laborantzaren etorkizuna eztabaidagai izanen da datorren esteartean Ortzaizen eginen den mahai inguruan.

Maitzaren 2an aipatzeko urtebetzea dugu, Auñamendi taldeko mendizaleena alegia. Goizean mendi buelta egingo dute, Bankatik abiatuta Baigorri, eta, nekagaitzak direla frogatzeko edo, eguzkia ezkatzen denean Bixenta ostatuan bilduko dira, gau pasan.


Horrelako asteak behar bezalako amaiera izan dezan, igandean, maiatzak 3, Euskal Kantu Txapelketaren Nafarroa Behereko final erdia izanen da. Arratsaldeko hiru t'erdietan, Baigorriko ezker paretan.

Urtean behin bada ere, bi Nafarroek bat egingo dute datozen egunotan. Arrenkuraz dio Bidartek garai batean bi aldetako nafarren harremanak bizkorragoak zirela. «Lehen baino motelagoak dira orain. Nik ezagutzen ditut gure aitaren istorioak eta beti aritzen zen Erratzu, Arizkun eta Elizondoko jendeaz. Eta ez dira hain zaharrak gure gurasoak...».

Hala ere, lokarri hori poliki poliki estutzen joango dela uste du Bidartek. «Bizimodu arrunt diferenteak ditugu, eta horiek behar ditugu erakutsi, elkar hobeto ezagutzeko». Oraintxe ba aparteko aukera elkar ezagutze hori sakontzeko: zatoz Baigorri-  
rat.



Mugarri - Zedarrak baten ikuspegi orokorra



EUSKAL KULTUR ASTEA 1992

Apirilaren 25etik maiatzaren 3ratz  
**Apirilak 25, ibiakoz**

Gaita Eguna  
150 gaitero Baigorri  
9oretan: kontzertua Baigorriko Elizan  
Gau pasa Bixenta ostatuan

**Apirilak 28, asteartea**

15etan: Ortzaizen, ezker paretako salan, Herria, Mozkina eta Gizona  
Mahai inguruak: A.O.C. Produksioak?

**Apirilak 29, asteazkena**

Haurren eguna Elizondon  
Jokoak, dantza, atsedeak askari eta besta! 9tan: zinema Arrozan 'Le pas suspendu de la cigone' (Théo Angelopoulos)

**Apirilak 30, ortzeguna**

16tan: Juan Carlos Etxegoien Xamarren 'Orhipean' liburuaren aurkezpena.  
Baigorriko Bixenta ostatuan  
21etan: mintzaldia Baigorriko Bil Etxean. Gaia: Kalelondia herriaren estatutua eta garapena, egun guzietako borroka

**Maiatzak 1, ostirala**

21etan: antzerkia Baigorriko Bil Etxean. 'Aberenia' antzelana Oztibarreko taldearen eskutik

**Maiatzak 2, larunbata**

Añamendik 20 urte  
Mendi ibilaldia: Banka, autza, Nekaitz, Izpegi, Baigorri. Goizeko zazpi t'erdietan abiatuko gara

20tan: gau pasa Bixenta ostatuan, Basaizeak antolatutako: Talo, xingar, musika...

**Maiatzak 3, igandea**

15,30tan: Euskal Kantu Txapelketa. Nafarroa Behereko ginal erdia Baigorriko ezker paretan  
Gainera, apirilaren 25etik maiatzaren 3rarte 'Des mondes à part' erakusketa ikusgai izanen da Elizondoenian (Syndicat d'Initiative)

NAFARROAREN EGUNA

**Apirilak 26, igandea**

10etan: Goizeko agurra Baigorriko kartierretan  
Gaiteroak (Iruña, Tudela, Baigorri, Uztaritze, Lizarra eta Zangoztakoak), txarangak (Ustaritze eta Jaraut) eta txistulariak  
10,30tan: Eskulan erakusketa Islan  
12tan: Arrola dantzariak, kantonamenduko koralak, Zangoztako ziganteak, dantza

jauziak Adarzak alaiturik

14tan: Bazkaria Islan. Kantariak: Erramun Martikorena, Magali Zubillaga, Daniel Xalbador, Gérard Ithoidy, Irigoien anaiak, Jojo eta Ramuntxo, joteroak  
17tan: Plaza nagusian Luzaidoko dantzariak, Iparla musika eskola, Iguzki Lore kantari gazteak, Orzi, Baillables gaiteroekin, eromeria eta dantzaldia Adarza taldearekin

Giza legeak iziatutako mugak

**E**uskaldun espainola ez da frantsesa, beharrak ekarritako nahaspila. Mugarriak bi Nafarroa euskalduna da; euskaldun frantsesa ez zuten izatez bakarra zenean, baina batasun kon-espainola, baina euskalduna da. Alegia: giza legez zuten irautu du. Horregatik biltzen dira nafar egin zituzten euskaldunak espainol eta frantses, jauziak Baigorri, 1841 urtean gertatutakoari jaramo-Jainkoak naturaren liburuan izkiriatutako legeak egiteke. Ordurarte Euskal Herriko muga Ebro zuten euskaldun». Honela azaldu zuen Arturo Galian egon bait zen, ez Bortuetan. Gerora berriz giza pionek mugen arazoigabekeria, izatez dena zuek zedarriak ezarri dituzte.

edo kontrabandoa. Mugarientzat hesiak ez dira inolaz ere oztopo izan, bedeinkazioa baizik. Bertakoek diotenez, izkiriatu gabeko akordioa errespetatzen zuten mugarriak eta 'carabenero' eta 'douanierrek'. Horrela, muga zaindarien mendian gaueko lanean harrapatuz gero, mugarriak fardelak bertan uzten zituzten ihesari emateko. Trukean, zaindariak ez zuten kontrabandistak tirokatzen. Etsita, kontrabandistak harrapatzeko saioa egin beharrean fardelak eskuritzen zituzten alde bietako mugazainek.

Beste batzek berriz hastapenetik madarikatu izan dituzte zedarriak, arazo franko sortu dizkie eta. Luzaide, kasu, bitan zaituta gelditu zen Espainia eta Frantziaren arteko mugak ezarri zituztenez. Luzaide Nafarroa Beherean dago, baina ez osoa, Ondarrola auzoa Nafarroa Beherean geratu zen eta. Ondalorratarak elizaz Luzaidekoak dira, baina udalez Arnegiokoak. Buruhauste anitz dakarzi honek, ezkontzeko paperak Arnegin egin ondoren ezkontza Luzaideko elizan burutuko bait da.

Istoria bera ezagutzen dute kintoko baserriek. Zubiondo, Urritziria, Pablo, Putut, Gartxabal, Kastro eta Paia izeneko baserriak Erroibar eta Baztangoak dira, mugaz bestalde egon arren. 1856 urte geroztik Hasi ziren arazoak. Aldudeko mendiak aberentzako bazka eta ohian oso aberentzako izanik, Frantzia eta Espainia lehian sartu ziren horien jabetza eskuratzeko.

Zazpi baserriko egoera berezia bizi izan dute: zergak Erro eta Baztanen ordaindu behar, trukean ezer gutxi jasotzeko. Edozein lan edo konponketa egiteko ez baimenik, ez diru laguntzarik. Hori ikusirik, eta 'espainiarak' izan arren, kintoko baserriek Aldudeko udalarengana jotzen dute orain ezer behar dutenean.

NAPARROARI

Xalbador

Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde, diot: «Aurrean Baztan daukazu, giblean Erro alde, ezkerretarat Eugi herria, eskuin alderat Luzaide; zure guziak Nafarroaren hegalean azpian daude.

Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik, napartarren odol kartsua zainetan senditzen dut nik; eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarritan iganik, norbaitek: «Atzar hadi!» diola entzuten dut urrundunik.

Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra, titulu horren lehen hitzean galtzen du bere indarra; ni behertar zendako deitu, nerez banaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat, Nafarro bat da bakarra.

Bere zainetan sendi duena hastapeneko odola, eman dioten izen mendreaz nekez daitaie kontsola; ezin onartuz bizi naiz beti murrizturikan dagola, bere itzala Baionaraino hedatzen zuen arbola.

Bainan enetzat, o Nafarroa, ez da ezin igarria izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria; enbor sendoa sartu baitzuten aizkora beldurgarria, zure laurki bat bertzerik ez da ni bizi naizen herria.

Bi aldetarik nagusi bana jarriz gero Nafarroan, ez dakit gure etorkizuna zoin ateri buruz doan; ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan, bat gineneko egun ederrak diut bakarrik gogoan.

Betiitik arrain haundien lege okaztagarriak gaitue napartar anai arrebak bi taldetan ezarriak; bainan ele huts dira tratuak, itxura huts zedarriak, hitzez ta harriz ezin haustiak dira gure lokarriak.

O Nafarroa, banatorkizu otoizka fagore galdez: urrikal zaite ukatu nahi zituzten seme alabek; bertze koroka batek estaltzen bagaitu ere hegalez, Baxenabarrak Ama zu zaitu, guk nahi izan ala ez.



ERRENTA ETA ONDAREA 1991 ZURE AITORPENERAKO ARGIBIDEAK

**Aitorpena egiteko egunak: apirilaren 6tik ekainaren 30era bitarte.**  
**Nork egin behar du?:**  
a) Errenta Aitorpena: urtean 950.000 pezeta gordin edo gehiagoko dirusarrerak, lanetik edo beste edonondik, edo guztien batuketatik etorriak, izan dituztenak, eta kapital errentagatik edo ondare gehikuntzagatik 228.000 pezeta edo gehiago irabazi dituztenak.  
b) Ondare Aitorpena: 11.000.000 pezeta baino gehiagoko ondare garbia duten pertsonak.  
**Inprimakia**  
Ekonomia eta Hazienda Departamentuko bulegoetan eta Nafarroako estankoa erosten ahal dira.  
**Prozedura automatikoa**  
Zergapekoek ordenagailu bidez egin dezakete aitorpena, Nafarroan paratutako bulego guztietan. Horretarako, aski da beharrezko frogagiriak eraman eta eskatzen diren datu batzuk orri batean paratzea. Ez da alde aurretik inprimakirik hartu behar. Errexa, azkarra eta doakoa izateaz gain, diru itzulkeiak errezten ditu. Prozedura automatikoaren bidezko aitorpena erosoagoa egiteko, "zenbaki eskatua" sistema ezarri da; Haziendako edozein bulegotan har daiteke. Kale Berriko 30 zenbakian paratutako Hazienda bulegoan joan nahi baduzu, "zita" eskatu beharko duzu 212210 telefono zenbakira deituz.  
**Erantsi beharreko agiriak**  
Zergapekoek ondoko agiri hauek ekarriko dituzte:  
- Famili Liburuaren fotokopia, ezkontide eta seme-alabengatik kuotan kenkariak egiten direnean.  
- Enpresaren edo ordaintzen duen entitatearen ziurtagiria, lanagatik edo

higigarrien kapitalarengatik etekinak edo atxekipenak aitorzen direnean.  
- Lanbide edo arte ihardueren etekinengatik kontuko atxekipenak justifikatzen dituzten agiriak.  
- Aitorzen diren gastu kengarrien frogagiriak (Hirilur Kontribuzioa, balore edo etxebizitzak erosteko maileguren korrituak, etab).  
- Norberaren gastu, inbertsio edo bestelako arazoengatik kuotaka kenkariak aitorzen badira, horretarako ziurtagiriak.  
**Tributu esleipena**  
Inprimakia belez nahiz prozedura automatikoz aitorpena egiterakoan, zergapekoen esku dago beren tributazioaren zati bat Eliza Katolikoa mantentzeko edo bestelako helburu sozialerako uztea.  
**Hazienda bulegoak**  
Ondoko herri eta helbide hauetan daude:  
• Iruña: Kale Berriko, 30.  
• Tuter: Antso Azkarra Plaza, 8.  
• Tafalla: Teofano Cortés, 10.  
• Barañain: Udal Bulegoak. Udaletxe Plaza, z.g.  
• Burlata: Kale Nagusia, 45  
• Altsasu: Udal Bulegoak (astearte eta ostiraletan).  
• Elizondo: Udal Bulegoak (asteartean).  
• San Adrian: Udal Bulegoak (asteazkenetan).  
• Zangoza: Udal Bulegoak (astelehenean).  
Bulego hauetan, zergapekoari argibideak eman, aitorpenak hartu eta aitorpenak prozedura automatikoaren bidez egiten dira.

**• APIRILAREN 6tik EKAINAREN 30era BITARTE**  
**• 950.000 PEZETATIK GOITI, AITORPENA EGIN BEHAR DA**  
**• FROGAGIRIAK BETI DIRA BEHARREZKOAK**  
**• PROZEDURA AUTOMATIKOA DOHAINIK DA.**  
**ESKA EZAZU ZITA ALDEZ AURRETIK, EDO BESTELA HARTU ZENBAKIA**  
**• NAFARROA OSOAN BADIRA HAZIENDA BULEGOAK**  
**• 11.000.000 PEZETATIK GOITI, ONDAREA AITORTU BEHAR DA**

M. KAPTANSORO / IRUÑEA

Uste ohi denaren kontra, gaurko Baxenabarre edo Nafarroa Beherea ez zen inoiz merinalde bat izan. Nafarroako Erresumak bost merinalde zituen: Mendiak (Iruña), Lizarria, Zangoza, Erriberri eta Erribera (Tutera). Nafarroa Behereari, Nafarroa independentea zenean, 'Tierras de Ultrapuertos' esaten zieten Hegoaldeko nafarrek eta 'Tierras de Aquent puertos' Iparraldekoek.

Uste ohi denaren kontra, gaurko Baxenabarre edo Nafarroa Behereari Bortuez iparraldean goarnizio militarrek mantentzea zela atxakia. Baina, Nafarroa Behereko errege-erreginak atxiki zizkion 'Roy de Navarre' tituluari, baita Frantziarekin bat egin eta gero ere. Adibidez, entzute handiko Errege-Eguzkia, Frantziako Luis XIX, Nafarroako Luis III ere bazen.

1527an Karol IV Nafarroa-



## Gazteendako Zokoa

### Mirotz Txuria

*Circus Cyaneus*

Harrapakari azkarra  
Hegaldi baxuzalea  
Emeak mota zuria du



### Lurretik urruntzeke

Lurretik gertu hegaz egiten du, hegoak mantxoki mugituz eta planeatuz txori edo ugaztun txikien zai. Harrapakariak ikusten dituenan ziztu bizian abiatzen da, hankak luzatuak dituela.

Emea arra baino handiagoa izateaz gain, gris antzekoa da eta hegalean muturrak txuriak ditu. Arra, aldiz, grisa da, baina hegalean muturrak beltzak ditu. Hegazti hauek gazteak direnean emearen antza dute. Normalen landutako edo landugabeko so-roetan kokatzen dituzte kabiak, sasi artean ezkutaturik. Apirilean ugalduta ohi dira. Ar eta emeak kabia kokatuko duten inguruetan hegaletan hasten dira, elkartu, eta hilabete batera jaioko dira txitak. Bost edo batzutan sei izaten dira jaiotakoak baina hauetatik birek bakarrik lortuko dute iraunbizi-tzea.

Txitak oso azkarrak dira, jaiotze berriak direnean kabiaren inguruetako sasietan ezkututzen dira eta gurusoak janariarekin itzuli arte ez dira babeslekutik irtetzen. Hilabete batekin hegal egiten hasten dira, eta egia esanda ez zaie asko kostatzen ikastea.



## Antso Gartzeiz

### IGOR FERNANDEZ

Euskal Herriak frankoen, wigigodoen eta musulmanen erasoak jasan behar izan zituen. Istoria hau Antso oso txikia denean hasten da eta Eneko Arizaren semea erregea zelarik.

Dena hasten da Iruñeko Jauregian. Gartzea Enekoitz erregea zen garai horretan. Erregeak amets bat izan zuen: normandoek Iruña erasotzen zutela. Suteak, hiri guztia suntzituta, hondamena...

Erregea zaharra zen eta urduri zen ametsengatik eta bere adinarenengatik. Horregatik biltzarre bat egun zuen Hamabi zaharrekin. Berak beste bat errege izan zedin nahi zuen. Baina biltzarreak berak jarraitzea erabaki zuen. Nafarroa erasotua izan zen momentu horietan eta kolokan zegoen erreinua.

Antso Gartzeiz erregea izan zitekeela esan zuten baina bera oso txikia zenez bitartean enekoitzek izan behar zuela erregea erabaki zuten biltzarreko zaharrek. Enekoitz Daidilerengana joan zen (Antso Gartzeizen ama alarguna) berria esateko. Daidilek ez zuen nahi bere semea erregea izatea baina hala izan behar zuen. Antso errege izan behar zuen baina beste jauntxoek, hau jakitean, inbiria izango zuten eta bera hiltzen saiatuko ziren. Hori jakirik Otsandetak bere semea, Antsol, Daidileren semearekin trukatzera erabaki zuen. Horrela

nor bait Antso hiltzera joaten bazen Antsol hilko zuen.

Gauean suak ikusi ziren Belaten. Wikingoak Nafarroan zeuden. Gipuzkoatik jenedea izuturik etortzen zen. Iruñatik soldaduak eta erregea atera ziren Belaterantz. Normandoek emakumeak eta mutilak bahiturik zituzten. Gauean mozkortu ziren eta San Leon Ibaionako apezpikuaren burua han moztu eta horrekin jolastu zuten. Hura zen, argitu eta emakumeei indarrak eman zizkiena (normandoek makil batetan ezarrita zuten). Emakumeek normandoen espatak hartu zituzten eta ia guz-

tiak hil zituzten. Geratu zirenak soldaduek hil zituzten. Erregea eta soldaduak itzuli bezain laister erregea bahitu zuten ete erregeordekoa Aragoako kontea izendatu zuten.

Bitartean Gartzea Gaiztoak, Gartzea Semeneitzen laguna zenak, Otsandeta eta Antso hil zituen (baina aldatuak zeuden). Antsol hazi eta mutil sento eta indartsua bihurtu zen baita gerralari ona ere. Normanduak Ibaionan zeudela jakin izan zuen eta hara joan zen guda egitera handik botatzeko.

Bere burua ongi erabiliz izkutatu egin zituen bere mutil gerralariak eta nekazari gisa Ibaionan sartu ziren.

Normandoak ardoz mozkortu zituen eta Ibaionatik bota zituen. Azkenik errege izendatu zuten Leyreko monastegian DCCCC-XIII. urtean.

**O**tsandetak bere semea, Antsol, Daidileren semearekin trukatzera erabaki zuen. Horrela nor bait Antso hiltzera joaten bazen Antsol hilko zuen.

### KAZKARROAN

#### Kukuak eta 'kukuak'

Udaberria ez da batere itxusi, sentimenduak izan oi dira nagusi. Kukua entzun det ta 'kukua' ikusi, bainan askorik ez du guztiak merezi etorri bezelaxe badoa ihesi (bis).

Holakoa izaten da kukuen jira kabian behin egon ta gero urrutira. Ni 'kuku' baten bila joan naiz mendira iaz ez bada 'kukua' itzultzen kabira, nere amets guztiak alperrikan dira. (bis).

Txantxangorria

### BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Arto hautsa
3. Trebeak
4. Senidea
5. Herri nafarra



1. Metal astuna
2. Hirib. mairua
3. Herri nafarra
4. Nazka
5. Puskak



1. Herri nafarra
2. Zutoin
3. Hoben
4. Hizkia
5. Hodiak



### Zaharrak berri

Galtza zar batendako gona zar bat ezta faltako.

Gaiztoak bere antzekoak biltzen beti.

Arruazu

Askoren astoa goseak hil.

Askoren eskuetan dabillen tresna edo azienda aise galtzen da.

Gaintza

-Ba... azkeneko afdiz operatu minutuenean, hain azkar ibili ziren sendagileak, esponja bat utzi bait zidaten barruan.

-Ene, ene! Izugarritzko minak edukiko dituzu ala?

-Minik ez, baina odudanik egarriz ase ezinda nabil.



**Bizi bizian**

## Basaizea elkarteak 15 urte bete ditu

M. ESTEBAN / BAIGORRI

Basaizea Baigorriko euskal kultur elkarte orain dela 15 urte sortu zen euskaltasuna hedatzeko asmoz, baita ere «Baigorriko haranean bizi bat atxikitze, egoera txarrean bait zegoen gure eskualdea» adierazi zigunez Serge Istèque Basaizeako ordezkariak.

Istèquek segitu zuenez: «Gure elkarte bultzatzeko kultur astea antolatu genuen lehen aldikotz, Baigorriin. Hasieran oztopoak izan genituen gure eskualdeko biztanleen aldetik batez ere Baigorriko zinegotzi batzuen eraginez».

Ildo honetatik Kultur Astea ospatzen den Nafarroaren Eguna kariatara, Baigorriko biztanleek erreakzio bitxiak izan zituzten. «Oroitzen naiz lehen Nafarroaren Egunean, gure ibilaldia aurrera zoalarik Baigorriko karraketan herritarrek leihoak itxi zituztela eta etxeen barnean egon zirela. Dirudienez, jendeek ez zuten ulertu gure nahia eta bestalde euskal kulturaren aurka zeuden jende batzuek erraiten zuten gure Nafarroaren Eguna ez zuela zer ikustekorik euskal kulturarekin».

Gaur egun gauzak aldatu egin dira eta herritarrek ikusi zuten «festa bat izan zela eta elkarrekin hitzegiteko parada ona izan zela Kultur Astea» Istèquek adierazi zigunez. Basaizeako ordezkariak gaineratu zuenez, «lehen urtean Kultur Astearen aipagai nagusia itxaropena izan zen batez ere aterabideak atzemateko gure haran eta Nafarroa Behereako arazoentzat».

Erran daiteke garai haietan arazo ekonomiko eta sozialak



Baigorritarrek hasieran ez zuten Nafarroaren Eguna ulertu.

nahiko handiak zirela Ipar Euskal Herri osoan eta bereziki baserri tokietan. Istèquen ustez, «gure elkartearen ekitaldiekin, ez da dudarik, jende askori borrokatze nahia eman diogula, hemen zerbait eraikitze. Entzuten ahal da batzuek erraiten, 'Ipar Euskal Herria txikia da, eremu pobrea baizik ez da'. Gure aldetik

ezintasun hau ezeztatu genuen eta gure Kultur Astea beti adierazi dugu mintzaldi hauek gezurtiak direla eta alderantziz eraikitzen ahal ditugula gauza asko ekonomia edo kultur munduan adibidez».

Nafarroari dagokionez, Basaizea elkarteak mugaz bi aldeetako harremanak sakondu zituen.

Istèquek zioenez: «Nafarroarekiko harremanak ez dira gaurkoak. Basaizeak parte hartu zuen honetan baina betidanik izan ziren harremanak mugaz bi aldeetarik. Gainera azpimarra nezake Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beheren arteko harremanak beti izan direlako sortu zela Nafarroaren Eguna».

## Basaizeak kultur eta ekonomia zentrua egin nahi du Baigorriin

M.E. / BAIGORRI

Aurten, Basaizea elkarteak beste pausu bat bultzatu du, Baigorriin bertan etxe berri bat erositako. Etxe honek Bixenta du izena. Basaizeak erabiltzeaz gain, etxe hau Baigorrialdeko beste elkartei irekitzeko gogoa daukate xedearen bultzatzaileek.

Baigorriko kultur elkartearentzat, lehen helburua izan zen tokirik lortzea bilerak egiteko. Joan zen urtean, etxe eta ostatu bat salgai egon ziren. Basaizeako etxe hau aski laister erostea erabaki zuten, elkartearen dinamika indartzeko eta noski, euskal kultura urtean zehar hedatzeko asmoarekin.

Basaizeak Bixenta etxeko erabilpenaren neurriak finkatu zituen: «Euskara eta euskal kultura garapen xedeak dituzten tal-

de edo jendeei bakarrik irekia izango da Bixenta». Hor antolatuko dira, besteak beste, Kultur Astea edo ihauteriak. Horretaz gain, urtean zehar Arrola dantza taldeak haurrei eskolak emango dizkiete etxe honetan.

**E**uskara eta euskal kultura garatzeko xedeak dituzten taldeek Bixenta izeneko etxea erabiliko dute.

Orainokoa Bixenta asteburu guztietan irekia da. Baina ekainetik irailera arte egunero irekia izango da batez ere bertako ostatua, langile baten ihardueraz. Etxe hau erosteko Basaizeak 300.000 libera (6 milioi pezeta)

ordaindu ditu. Gaur egun beraz Basaizeak dirua biltzeari ekin dio bankuari eskatutako mailegua pagatzeko. Horretaz gain, 100.000 libera (2 milioi pezeta) bildu behar ditu gauzak berrantolatze eta honen inguruan.

Bixenta erosteko Basaizea Udalarekin harremanetan hasi zen, zeren Udalak ere etxe honen jabe egiteko aukera bait zuen. Hala ere, gauzak konpondu egin dira eta dudarik gabe gertakari txiki honek Basaizearen seriotasun eta dinamika frogatzen du.

Etxe honekin, Basaizeak beste pausu bat bultzatzen du bere funtzionamenduan, baina elkarte ez da horretan gelditzeko asmotan, kultur eta ekonomia zentru bat egiteko xedea bait du Baigorriko kultur elkarteak. Honetarako langile bat hartzea premiazkoa zaio.



Serge Istèqueren ustez euskal kultura bultzatu beharra dago.



# Terexa Lekunberri

..... Soziologoa

## «Nafartar izatea da sentimendu indartsu bat Baigorriko aranan»

MIXEL ESTEBAN / BAIGORRI

**EGUNKARIA.**- Gaur egun zer nortasuna du Nafarroa Behereak?

**TEREXA LEKUNBERRI.**- Nafarroako partaide garelako sendimendua bada indartsua, beti izan bait ziren harremanak mugaz bi aldeetarik. Eman dezagun, guk hemen Baigorri eskualdean Baztan aldearekin betidanik harreman hertsitan izan gara, merkatua edo kontrabanda mailetan adibidez. Hemengo saltzailak hara joaten dira. Gure arbasoetarik batzuek, gu baino hobe-kiago ezagutzen dute Nafarroa, bereziki harreman ekonomikoak manaturik. Gero azpimarra daiteke familia aldetik Baigorri eta Baztan aldeetan, aintz eskontza izan direla.

**EGUNKARIA.**- Zure ustez, Donapaleu edo Nafarroa Behereko eskualde batean Nafarroaren sendimendua ba ote da?

**LEKUNBERRI.**- Nabaritzen da, Landibarreko jendeekin mintzatzeko delarik azkarki senditzen direla Nafartar. Armendaritze eskualde aldean ere bai. Gero erran daiteke hemen, Baigorri aldean harreman hertsia goak ukan ditugula Nafarroarekin, batez ere muga aldean bait gaude.

**EGUNKARIA.**- Nola esplikatzeko ahal da kultur, politika eta ekonomi mailetan Baigorri aldeko dinamika berezia?

**LEKUNBERRI.**- Baigorri, Ipar

Euskal Herriari konparatuz laborantza mailan nahiko dinamiko da ikusiz instalazione kopuru handiena gure eskualdean dela. Gainera erran daiteke hemen dauzkagula baldintza zailenak.

Urepele, Aldude, Banka aldeetan, mendia besterik ez da. Fenomeno honekin ikusten da nonbat atxikimendua dagoela. Kultur, sozial, laborantza eta politika sailetan aintz bizi-zen da Baigorri aldean. Azken hauteskundeetan, abertzaleek % 16 inguruan egin zuten gure eskualdean. Kultur mami bat da, bizitzen dena oraindik.

Konturatu behar da ere gauzak transmitituak izan direla eta gu baino lehen, izan zen beti jendea euskal kultura besteei pasatzeko. Adibidez, Arrola dantza elkar-tek bere berrogei urte betetzen ditu aurrean eta jarraitzen du gaur egun ere. Gure burasoetan izan ziren ohitura atxiki dute. Belau-naldiz belaualdi zerbait pasatzen da. Bestalde azpimarra daiteke gure kultura bizitzen dela hemengo eskualdean. Hizkuntzak hemen zerbait erran nahi du, euskalduntasunak ere bai, jantziak, pilotak, festak ere bai.

**B**aigorriko Nafarroaren Eguna eta kultur astearen karietarat, bailara honen euskal kultur mundua mugitzen da, arlo ainitzetan. Nafarroaren Eguna festa bat da baita ere ikur bat Nafarroa

osoari begira eta bestalde Baigorri eskualdearen bizitzeko nahia agertzen duena. Aipagai hauekin, Terexa Lekunberri Ortzaitzekoak esplikatu zigun zertan dagoen Nafarroa Behereko Baigorri eskualdea.

Euskal ekitaldien inguruan bada galdu ez den zerbait.

**EGUNKARIA.**- Ikusten da euskal nortasunaren presentzia Baigorri. Hala ere ez duzu uste fenomeno berria dela gauza hau?

**LEKUNBERRI.**- Nafarroaren Egunaren eta ere Irulegiko Irratiaren sailetan egia da hasieran nahiko zaila izan zela. Gaur egun atea zabalik atzematen ditugu. Gauza bera da ikastolarentzat.

Bost hurrekin hasi zen 1982. urtean eta orain 35 haur dabilta Ortzaitzeko ikastolan. Gauza batzuek banalizatzen ari dira. Orain dela hamabost urte

ikastolaren aurka ziren jendeak orain ez dira behar bada ikastolaren alde baina beste gauza baten kontra. Gauzak aldatzen ari dira.

**EGUNKARIA.**- Zure ustez zer da Nafarroa Beherean gaurko arazo nagusia eta aterabidea?

**LEKUNBERRI.**- Ekonomia eta batez ere laborantzaren birmoldaketa da gaur egungo gure arazo inportantea Baigorri, Ipar Euskal Herriko beste tokietan bezala. Ardi esnearen krisiak erakusten du beste aterabide ekonomikoak behar direla, dibertsifikazionea behar da pentsatua izan. Arazo

**H**izkuntzak hemen zerbait erran nahi du, euskalduntasunak ere bai, jantziak, pilotak, festak ere bai. Euskal ekitaldien inguruan bada galdu ez den zerbait.



Ohiturak zuzen transmititu direla uste du Terexa Lekunberri.

hauek eskatzen dute aterabide berria eta guhaurrek gure gain hartu behar dugu eskualdearen garapen ekonomiko, dependentzia sistematikotik ateratzeko. Orain artino diru laguntzei esker gauzak indarrak eman gabe heldu ziren. Orain krisiarekin

pentsa daiteke aterabidea ez dela bakarrik etorriko. Konfientzia hartu behar dugu, eskas bait zaigu. Beti ekonomia mailan azpimarragarriak dira laborantza munduaren proposamenak batez ere nekazari gazteen mailan, produkzio berriak sortzeko.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

